

## Gure omenduak

# ETXANIZ tar NEMESIO

(Azkoiti ko omenaldian esango diran itzaldiak, beste zenbaki baten agertuko dira. Gaur gure lankide baten lantxo au argitaratzen da, bere orolpen eta gorasarrez).

**A**zkoiti eta Euskerazaintzak egunotan omenduko dabe On Nemesio.  
Apaiz jator, egizale sutsu, euskalzale kezkatu, idazle argi eta ainbat "titulu" edo duintasun, danak borondatezko, baiña gizabideko bere ekintza ugarien bidez eta eragiñez lortuak.

Luma zorrotz eta akularia berea. Lekuko: gobernadore, gotzai eta zela-ala erriari zuzenbidea erakustera beartuak, ortarako nortasundunak.

Jaiotez lengo gizaldiko zan; bizi eta eragiñez, oraingo; asmo eta ametsez muga gabeko denporetako.

On Nemesio 'ren kezka, bizi izan giñan negualdi luzeta gorri baten, euskerari bere udaberria billatu eta aurreratu naia izan zan. Konturatu barik erderatzen giñoiazala igarten eban berak. Zelan eten bide ori?

Asmotxa zan, irudipen argi eta ikuspegi luzeko. Eta gitxi lakoa kantu arin eta modakoei esanaldi bizi eta jatorrak egokitzen. Oiturazko moldeak alboratu eta tango, rumba, pasado-ble, habanera ta orrelakoei itz gozo, eztitsu, maitemintsu eta zirikalariak ipinten asi zan, beste doiñu batzuei akulua sartuaz biztu eragiten.

Modan jarri zitun ainbat abesti eta doiñu. Ori izan zan bere atsegiñetako lorpen bat. Gogoratzen?

Astigarraga ko Tomasa  
eman dizkigu azak!  
Lau mutil dabilta

nexka orren ondoren,  
ta bakoitzari eman dio  
maitasun laurden.

Edo ta "Txa, txa, txa, gure neska motxa"rena.

Nun da gure neska motxa,  
zintzilik bere mototxa?

Argi du begi zorrotza,  
pozik dakar gaur hiotza.

Umoretzu, sakon eta zentzu andikoa baita alako rumba a:

Ai, Peru!

Ai Peru,

Alabak ez dira aingeru.

laster naiz txiruliruliru,

Ai, Peru...

ez alaba ta ez diru.

mutillak dituzte inguru.

Edo ta Andoni ta Irune ondarrutar bikote gazteak ia Euskalerrri guztian zabaldu eben beste kantu jolasgarri a:

Antoni, Antoni!

Ai Anton! Ai Anton!

Kalabaza zale ez naiz ni!

Aza preskuari, gabon.

Ezin ukatu on Nemesio'k gazteak kantari ipini ba zitun be, adiñekoak bitsetan igarteko zoria lortu ebanik. Azken baten euskeraz barre ta irri egiteko eskubidea gendun ta gure illun-pea eten egin bear zan.

Orretan Etxaniz apaiza mezulari ona izan genduan, bere aurretikoen esaera indartuaz: "Euskerak burua jasotzea Jaungoikoak berak nai du".

A. Z.





ETXANIZ-tar NEMESIO  
apaiz euskalzalea,  
olerkari, musikari  
ta antzerti idazlea,  
ETXE ONETAN  
1899-XII-19'an  
jaio zan,  
Donostia 'n 1982-I-28'an  
ii zan.

1987-XI-28 'an  
Jaioterriko omenaldia  
Udalak eta Euskerazaintzak.

(Etxeko ormarrian.)

#### OMENALDIKO EGITARAUA:

11 'tan. MEZA abestua.

12 'tan. OROITARRIA agertzea jaiotetxean eta MUSIKA TALDEAREN entzunaldia.

12,45 'tan. UDALETXEAN, omenaldiko ITZALDIAK, Santi Onandia, Martin Olazar eta  
Karmel Iturria jaunak izlari.

Jarraian: AZKOITI 'KO ABESBATZEN abestiak.

Ondoren: Lagun arteko BAZKARIA.

(Azkoiti 'n, 1987-XI-28'an).

*On NEMESIO ren autorpenak:*

*"Ni, euskera /anean, oneraiño e/du naiz. Zuek, ortik, aurrera joka zazue bikain, gure izkuntzaren burruka irabazi arte".*

*"Gure biziak egun gorriak ikusi ditu. Euskal-miñak, ala ere, gure nekea jasotzen eta gure 'llunpenak urratzen erakutsi digu. Gure erriaren burrukak eman dio gure biziari bere argi ta lanerako akulua. Ondorengoak jasoko al dute noiz-bait gure lanaren frutua".*

*"Gure bizitza osoan, euska/miñez jota ibili gera lanean. Gure amesak beti alde batera jotzen zuten: gure izkuntzari bide barriak urratu nai izan dizkiogu. Eta ortan joan zaizkigu gure egunik onenak"*